

Lazarraga, Errenazimenduko idazle*

IÑAKI ALDEKOA BEITIA

RESUMEN
LABURPENA
ABSTRACT

El artículo versa sobre el legado renacentista en la obra literaria de Joan Pérez de Lazarraga. No hay lugar a dudas acerca de los géneros literarios, plenamente vigentes en la época de Renacimiento, que frecuentó el autor alavés: la novela pastoril y la poesía de estilo cancioneril. Lazarraga recoge en su manuscrito algunos de los tópicos más difundidos en ese período: el gusto por la novela pastoril (y de caballerías) y la novela morisca o la fábula de Tiramo y Tisbe. Lazarraga debe mucho de su formación como lector y escritor a la tradición renacentista (oral y escrita) divulgada en castellano.

Errenazimenduaren ondareak Joan Perez de Lazarragaren eskuizkribuan izan duen eragina argitzea izango du helburu artikulua. Ezbairik gabe aipa daitezke idazle arabarrak gustuko zituen literatur generoak: artzain eleberriak eta XV. eta XVI. mendeetako kantutegien estiloan idatzi zen poesia. Bere eskuizkribuak garai hartan hedatuen zeuden topiko nagusienak biltzen ditu: artzain eleberrietarako joera arrakastatsua (zaldunen eleberrientzako ahaztu gabe), eleberrri moriskoaren arrakasta eta Tiramo eta Tisbe bezalako fabularen erabilera. Lazarragak asko zor dio, irakurle eta idazle gisa, gazteleaz hedatutako Errenazimenduko ondareari.

The article is about the Renaissance legacy in the literature of Joan Pérez de Lazarraga. There is no question as to the literary genres most commonly invoked by the Alava author, genres which were fully prevalent during the Renaissance: pastoral verse and cancionero verse. In his manuscript Lazarraga includes some of the most popular topics of the time: the appreciation of pastoral novels (and novels of chivalry), Moorish novels and the fable of Pyramus and Thisbe. Lazarraga owes much of his training as reader and writer to the Spanish Renaissance tradition (oral and written).

PALABRAS CLAVE
GAKO-HITZAK
KEY WORDS

Renacimiento, novela pastoril y morisca, novela de caballerías, poesía cancioneril pliegos sueltos, villancico, tradición de manuscrito.

Errenazimendua, artzain eleberrigintza (eta moriskoa), zaldun eleberrigintza, kantutegietako poesia, plegu solteak, gabon-kanta, eskuizkribuaren ondarea.

Renaissance, pastoral and Moorish novel, novel of chivalry, cancionero verse, loose sheets, Christmas carol, manuscript tradition.

* Profesor titular UPV/EHU.
“Lan hau EHU/UPV-eko
GIC 10/100 eta Eusko
Jauriaritzako/Gobierno
Vasco-ren TIT 495/10
ikerketaren barruan egin da”

Fecha de recepción/Harrera data: 24-09-2010
Fecha de aceptación/Onartze data: 13-10-2010

Joan Perez de Lazarraga Larrean (Araba) jaio zen 1547 eta 1548ren bueltan (ez dakigu jaiotzaren data zehatza) eta 1605eko apirilaren 12an hil. Oñatin —Lazarragaren jauregian— zuten sorburua Arabako Lazarragarrek, eta familia-harremanak izan zituzten, besteen artean, garibaitar eta gebaratarrekin. Ahaide Zaharren leinuko beste partaide askoren moduan, Espainiako Koroaren inguruan ibili ziren Lazarragatarrak ere. Adibidez, Juan Lopez de Lazarraga Errege Katolikoen idazkari izan zen, eta Joan Madrilen bizi zen 1567an. Pedro Perez de Lazarraga izan zuen aita, lehendabizi Graciana de Naharriarekin ezkondua egon zena eta gero Elena Lopez de Ordeñanarekin. 1564an bere emazte zenaren familiako batek hil zuen. 1575ean Catalina Gonzalez de Langarika arabar aberats baina idazten ez zekienarekin ezkondu zen, eta bi seme-alaba izan zituzten: Maria, Juan Velascorekin ezkonduko zena, eta Agustín, Larreako etxea heredatu zuena.¹

Genealogista eta historiagile ere izan zen. Arabako Historia (Historia de Álava) idatzi zuen, baina lan hori galduta dago gaur egun. 2004an Borja Aginagalde historialariak Madrilen aurkitu zuen euskaraz idatzitako eskuizkribua, osatugabeko artzain-eleberritxo bat eta poema eta kantu-bilduma batez osatua. Eskuizkribuak 1567tik aurrera idatzitako lanak biltzen ditu. Euskaraz idatzitako poema eta kanta askoren izenburuak gazteleraz idatzita agertzen dira. Bildumako bederatziko poema ere gazteleraz idatzita daude.

Artean bere poemen arrastorik ere ez zenean, “el poeta” ezizenez ezaguna zen. Eskuizkribuak Lazarragaren bizitzaz eta garaiko gertaez hainbat pasadizoren arrasto eta iradokizun eskaintzen du, hala nola, artean gazte zela, Euskal Herritik kanpo zebilela ezkontzeko etxera zedila agindua jaso zueneko, aitaren heriotzaren ingurukoak, zaldun eleberrien erara antolatutako torneoen aldeko jaidura edo Salvatierrako erreketarena.

Artikulu honen helburua honako hauxe izan da: Lazarragaren eskuizkribua Espainiako Errenazimenduaren testuinguruan irakurri.

Eskuizkribuaren transkripzio fidagarri bat lortu arte behin-behinekoak izango dira beti hari buruz eginiko literatura iruzkinak. Hala ere, Joseba Lakarraren zuzendaritzapean eskuizkribua lantzen ari den taldeak (“Monumenta Linguae Vasconum”) plazaratu berri du ikerketaren lehen emaitza.² Lazarragaren eskuizkribu honetan esku bat baino ge-

0. JOAN PEREZ DE LAZARRAGA. BIZITZA ETA OBRA

1. ERRENAZIMENDUA LAZARRAGAREN LITERATURAN

1 Ikus G. Di Cesare, “El último legado de Juan Pérez de Lazarraga: su testamento”, Sancho el Sabio, nº 31, 2009, 299-326. or.

2 Joseba Lakarra, Gidor Bilbao, Blanca Urgell, Ricardo Gomez et al. (arg.): “Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa” (Vitoria-Gasteiz, UPV/EHU, 2010). Interesdunak honako helbide elektronikoan aurkituko du ikerketa lanaren emaitza: <http://www.ehu.es/>

hiago antzematen dela diote, eta ziur aski, garai desberdinetan eranstean joandako idatzi eta testuak daudela bertan. XVI. mende inguruko beste literaturetan gertatzen den moduan, garai hartan ohikoa zen eskuizkribu, koaderno edo karpeta berean biltzea norberarenak eta besterenak ziren testuak, handik eta hemendik hartuak, geroak ekarriko zukeenaz ohartu gabe. Izan ere, eskuizkribu horiek argitarapen asmoetatik urrun ibili ziren maiz, esku batetik bestera. Horrelaxe gertatzen da Lazarragarenean ere: British Library-ko Morbecq-eko Markesaren bildumako plegu poetikoetan³ Lazarragaren eskuizkribuan “El amor sin piedad / destruyó mi honestidad” glosarekin hasten den poema berbera agertzen da. “A la mía gran pena forte” piezari erreferentzia egiten dioten hiru glosa gutxienez ezagutzen dira. Arabarraren eskuizkribuan horietako bat agertzen da. Manuskritoan halako gehiago ere egon daiteke, apokrifikoak edo beste esku batek txertatutakoak.

Ordu arte ezezagun genuen Estibaliz Sasiola poetaren izenean argitaratutako hiru poema ere badatoz eskuizkribuan, ez dakigu egileak berak txertatuak ala beste norbaitek.

Eskuizkribuaren hasieran agertzen den artzain-eleberritxoaren eta ondorengo koplek arteko harremanaz ere ez dakigu ezer, hau da, batera idatziak izan ziren edo gerora erantsiak. Beraz, denbora beharko da argilunak alboratu eta zalantzarik gabe haren hizkuntza eta literaturaz mintzatzeko. Artikulu honen helburua zera da, Lazarragaren literatura Espainiako Errenazimendu garaikoarekin solasean jartzea, uste baitugu, bere garaiko gizona izaki, Lazarragak Errenazimenduko literatur ondarea izan zuela eskola.

1.1. XVI. mendeko literatura testuen atarramentua

Rodríguez-Moñinok⁴ lan eredugarri batean erakutsi zigun bezala, ezin da ulertu Espainiako Urrezko Arorik, ez behintzat XVI. menderik, eskuizkribuen fenomenoak alde batera utzita.

Funtsean, bere tesia hauxe da: Literatur lanen transmisioa dela-eta, beti ere Espainiako literaturaz ari garela, esan daiteke XVI. mendeko idazle eta irakurleek ezagutu zuten poesia eta guk ezagutu duguna oso

monumenta/lazarraga/. Egileek zuhur jokatu dute, eta badakite ikerketa alorrean ez dagoela behin eta betiko den ezer. Horregatik, internetek eskaintzen dituen abantailaz baliatuko dira lana osatzen joateko. Artikulu honetan eurak proposatutako testu ordena eta sailkatze ikurrak errespetatuko dira. Horrela A8, esate baterako, ikertzaileek transkribatutako A taldeko 8. poema izango da. B atalekoetarako Patri Urkizuren *Joan Perez de Lazarraga. Diana & Koplak* (Erein, 2004) liburuko transkripzioari jarraituko zaio.

3 Antonio Rodríguez-Moñino, *Los pliegos poéticos de la colección del Marqués de Morbecq* (Siglo XVI). Edición en facsímil precedido de un estudio bibliográfico. Madrid, Estudios bibliográficos, 1962. Erreferentzia hau Patrizio Urkizuri zor diot.

4 Antonio Rodríguez-Moñino, *Construcción crítica y realidad histórica en la poesía española de los siglos XVI y XVII*, Madrid, Castalia, 1968.

bestelakoa dela. Gauzak horrela, gerta daiteke garai hartan oso estimatuak izan ziren egileak gaur egun erabat ezezagun izatea, eta alderantziz, gaur egun Literatur Historietan ohorezko lekua betetzen dutenak bere garaian apenas irakurriak izatea.

Rodríguez-Moñinok garbi erakusten digu XVI. mendeko literaturan gailurtzat ditugun idazle asko oso gutxi izan zirela irakurriak, eta beste asko, berriz, ezezagunak. Eta hori gertatzen da Garcilaso de la Vega-rekin hasi, San Juan de la Cruz eta Fray Luis de León-ekin jarraitu, eta Gutierre de Cetina-rekin amaitu arte. Arrazoia: horien guztien poesia inprimatua poetak hil eta handik urte gutxiago edo gehiagora argitaratu zen. Esate baterako, Garcilaso de la Vega 1536an hil baldin bazen, bere obra 1543an argitaratu zen; San Juan de la Cruz-ena hil (1591) eta 37 urtetara (1628); Fray Luis de León-ena (1591) 40 urtetara (1631), eta Cetina-rena 300 urte beranduago (1895). Norbere bizialdian liburu inprimatuta ikusi zuten poeten kasuak salbuespen dira.

Jakina, honek soziologia arazo bat planteatzen digu, transmisioa, periodizazioa eta irakurlegoa begi aurrean jarriko lituzkeen literaturaren eta irakurleriaren soziologia batena. Azken batean, garai hartan literatur-hartzailearen aukerak bi ziren: kolektiboa eta banakakoa. Lehenengoan sermoiak, antzerkia eta batek irakurriz eta besteak entzunez egindako irakurketa kolektiboa egongo lirake; bigarrenean, banakako irakurketa: liburuak eta eskuizkribuak. Eta gorago esan dugun bezala, liburu inprimatuek ez dute ematen inondik inora XVI. mendeko poesiaren panoramarik. Ezbairik gabe, inprimatutakoen aldean asko ziren eskuizkribuen bidez garaiko irakurleek eskura izan zituzten poetak. Esate baterako, Garcilaso de la Vega-ren poesiari Fernando de Herre-rak eskainitako lan bikain batean zera erakusten digu, ezagutzen zituela argitaratu ez eta gureganaino iritsi ez diren XVI. mendeko poeta nagusi batzuen lanak. Nondik ezagutu zituen? Ba, ezinbestean, karpeten bidez, eskutik eskura zirkulatzen zuten plegu solte edo koadernotxo-etatik.

Gurera etorri, *L'Art poétique basque*-n (1665)⁵ aitortzen den bezala, Oihenartek bazuen gureganaino iritsi ez diren euskal poeten ezagutzarik (Jean de Etxegaray, Salgize, Arnaud de Logras). Seguru asko, plegu solteetan edo bertso berrietan irakurriko zituen, zirkulazio biziko euskarri bai baina liburu inprimatua baino galgarriagoa ere gertatu zena.

Eta halaxe ezagutu bide zuen Lazarragak Cetinaren poematxo hau (edo beste baten koadernotxo batetik kopiatu), “Zagala, cuán libre estás...” bertsoarekin hasten den glosa (A8):

5 Arnaut Oihenart, *L'Art poétique basque* (1665), arg. P. Laffitte GH, 1967.

Zagala, quán libre estás,
quán sobervia, dura y fría;
pues yo 'spero que algún día
casarás y amansarás.

De no tener subjeción
ni de amor ni de marido,
tienes tan endurecido
el rebelde corazón.
Pero sienpre no estarás
tan libre de fantasia:
[e]spero en Dios que algún día
casarás y amansarás.

Si el miedo de ser amada
de libre nada te aprieta,
bien es que prueves subjeta
si es más grave el de casada.
En fin, al yugo vendrás,
y entonces, señora mía,
dirás: "Ay del que dezía
casarás y amansarás!"

Las yras, las asperezas,
desdenes, desabrimientos,
novedades, movimientos,
los desgustos y estrañezas,
mientras que libre serás,
usa dellos todavía;
que yo espero que algún día
casarás y amansarás.

Allí me veré vengado,
y tú quedarás pagada;
yo, de verte malcazada,
tu de averme mal tratado.
Allí, traidora, dirás,
llorando de noche y día:
"Triste de aquel que dezía
casarás y amansaras".

Doncellachoa, orain çaoz
soberviagaz beteric;
ezcon baçatez, eongo çara
ardia leguez mansaric.

Egun baçaoz libertadeaz,
oy noxbayt galduco doçu;
fortunea curela dana
aldi bat pensa eçaçu.
Onezquero fia ce çatez,
ez artu fantasiaric;
ezcon baçatez, eongo çara
ardia leguez mansaric.

Beste bategaz ezcondu arren,
uste badoçu oba dala,
errazoaz desaqueçue:
La bella mal maridada.
Orduan acordaduco çara
oy nola esan niçun nic:
ezcon baçatez, eongo çara
ardia leguez mansaric.

Ala çara mudaduco, ce
ez çau inorc eçautuco;
bici beste bat artuco doçu
condiciooc quençaiteco.
[...]
[...]
[ezcon baçatez, eongo çara
ardia leguez mansaric].

Gorago esan dugu Cetinaren poesia bera hil eta handik hirurehun urte eta gehiagora argitaratu zela. Baina aipatu berri dugun poema hau Toledoko Biblioteca Probintzian agertu zen 1954ean, ordu arte bertako kodize batean denbora luzez lo egon ondoren.⁶ Argitaratu gabeko kantutegi batean agertu zen beste egile batzuen lanekin batera. Lazarragak kantutegi horretako poema hori ezagutzen zuen, eta hari jarraituz atondu zuen berea. Edo beste nonbaitetik eskuratu eta erantsi zion bereari.

Beraz, egin kontu Cetinaren poesia ia ezezaguna izan zela XIX. mende amaiera arte, eta nahiz eta liburu gisa argitaratu gabe egon arren, XVI. mendeko poetek eta irakurleek izan zutela haren berri.

Beraz, saia gaitezen irudikatzen sasoi bat non poesia ez zen gerora bihurtuko zen generoen arteko printzesa; izan ere, poesiaren gainetik ba zeuden beste mota bateko lanak, ez bakarrik erlijiosoak, baita lan didaktikoak ere, edo tradizio klasikotik estimu gorena gordetzen zuten epopeiak. Hemen adibide ezaguna dugu Petrarca humanistaren kasua: inondik ere espero ez zuen genero batengatik izan da gogoratua ondorengo artean, hain zuzen ere *Canzoniere*-arengatik, eta ez latinez idatzitako *Africa* bezalako epopeiarengatik. Gauzak horrela, pentsa daiteke Perez de Lazarragaren eskuizkribuko koplak eta kantak entretenimendu eta jolas aristokratiko edo kortesau gisa har daitezkeela. Beharbada, lan serio eta arduratsukoak izan zituela idatzi zituen Arabako Historia eta etxeko genealogia.

1.2. Ze literatura mota da Lazarragaren eskuizkribuan agertzen dena?

Lazarragak XV. eta XVI. mendeetan hedatuen zeuden generoetako batzuk landu zituen. Prosa eta poesiak tartekatuz idatzitako artzain-aleberritxoak eta garai hartan hain popularrak izan ziren kantutegien erako amodiozko koplak eta kantak dira gehien bat Lazarragak bere eskuizkribuan idatzitakoak. Tartean, burlazko hainbat poema, erlijiozko beste batzuk ere, eta kronika eta zirkunstantziazko gutxi batzuk.

1.2.1. Zaldunen eleberritik artzainen eleberrira

Esan bezala, XV. eta XVI. mendeetan hedatuen zeuden generoak landu zituen Lazarragak. Has gaitezen artzain-aleberritxoarekin.

Zalduneriaren tradizio peto-petoan, artzain-ofizioak ez zuen inondik ere gerora hartuko zuen osperik izan. Alderantziz, behar den moduko zaldun aristokraziarekin alderatuz gero, oso maila kaxkarrean geratzen zen hura. Hala ere, gauzak aldatzen hasi ziren 1560 ingurutik aurrera.

⁶ Ikus José Manuel Bleuca, *Sobre poesía de la Edad de Oro*, Gredos, Madrid, 1970, 48-49. or.

Ez dago zalantzarik zaldun-eleberrien arrakasta itzela izan zela XVII. mendera arte, baina 1560ko urte horietan jada makaltzen hasia zen. Topiko bat da gaur egungo Literatura Historietan zera esatea, Cervantesen *Kixoteak* eman ziola zaldun-eleberri tradizioari azken estokada, baina egia esan, ordurako, hau da, 1600. urterako (XVII. mende hasiera), zaldun-eleberrien tradizioa odolustuta zegoen jada.⁷ Hala ere, ez ahaztu zaldun-eleberri gintza XII. mendean hedatu zela Europako literatura nagusietan eta, gutxienez, hiru-lau mende luzez elikatu zuela mendebaldeko irudimen mundua. Hasi XII. mendean ziklo bretoiarekin –Artur erregearen zikloa– eta jarraitu Amadis sagarekin XVI.ean. Tartean, Tristan, Floristán eta Perzebal bezalako izenek irudimenetik errealitatera salto egin zuten eta zaldun askoren izen bihurtu ziren (geurean ere bai: “Mondragoeko erreketak” kantuko Presebal edo Tristan Le-guizamon, adibide).

Lazarragak bere artzain-eleberria idazten duenerako zaldunen sen gerlaria gero eta sentimentalagoa bihurtzen ari da, hau da: borroka gutxiago eta amodiozko intziri gehiago. Eta testuinguru horretantxe hartuko dio aurrea artzain-eleberriak zaldun-liburuari. Esan genezake zalduna artzaindu, otzandu egiten dela apur bat. Hala ere, artzain-eleberriak zaldun-eleberriaren tradiziotik ugari du, baina jada otzandutako zaldun-eleberrietik. Konparatu bestela Montalvoren *Amadis de Gaula* eta haren jarraipenak idatzi zituen Feliciano de Silvaren zaldun eleberrietara dagoen aldea.

Zergatik ari naiz aipatzen hainbestetan zaldun-eleberriak? Batetik, Lazarraga bera zaldun-aristokraziako familia batekoa zelako, eta bestetik, apaiz eta erlijiosoa alde batera utzita, garaiko liburu irakurle-kopururik zabalena⁸ zaldunen estatus horren baitan zegoelako. Ez bakarria, baina bai ugariena. Alde horretatik oso interesgarria da irudikatzea Lazarraga artzain-eleberri baten idazle gisa eta Lazarraga etxe oneko zaldun, Ahaide Nagusien adarreko leinu bateko zaldun.

Garbi dago zaldun-eleberrien imajinarioa estimuan zuela Lazarragak. Eskuizkribuko lehen poeman (A1) mundu horixe da azaltzen dena:

*“Doncella flordelisaric asco
guztiac gorriz janciric:
-Gaztelu, Guebaracoan gara
gu bici defendiduric,
gure jazteco gorrioc dira
contentuagaz josiric,
justaric asco çaldun guztioç
eguiten dave gugayti...”*

⁷ Ikus Maxime Chevalier, *Lecturas y lectores en la España del siglo XVI y XVII*, ed. Turner, Madrid, 1976, 87-89. or.

⁸ “Aristokraziatik zetorren dudarik gabe denborapasarako irakurketen kopururik bikainena”, M. Chevalier, op. cit., 27. or.

Zaldunen arteko justez edo borrokez ari da poema horretan, Erdi Aroko zaldun-eleberrietako formatuari jarraituz, Chrétien de Troyes-enganetik XV. eta XVI. mendekoetaraino aldatu gabe iritsi den eszenifikazio berean, Lancelot-en eta Camelot-en biltzen ziren Mahai Borobileko zaldunen arteko lagun-giroan egongo bagina bezala.

Irudimenean bada ere, egin kontu XVI. mendeak Erdi Aroko mundua oso gertu zuela oraindik. Horra adibide batzuk, eta ez justu fikziozkoak, baizik eta gizarte haren espiritua ulertzen lagun diezaguketenak: 1517an Gortea Valladoliden zegoen. Eta 1517 eta 1544 bitartean zaldunen arteko justak egin ziren. Ez da, bada, literaturan soilik dagoen zera, baita garaiko espiritu aristokratikoan barneratuta dagoena ere. 1527an Felipe II.aren jaiotza ospatzeko ospatu ziren torneoak Amadis de Gaula-ren erara antolatu ziren.

1549an Bins-eko justak ospatu ziren, Amadisen erara hauek ere. 1565ean, Baionan, Isabel de Valois-en etorrera zela-eta, halako zaldun-festa bat antolatu zen eta bertan aristokraziako zaldun askok hartu zuten parte: ikuskizun hark erraldoi baten atzaparretan dabilen dama baten erreskatea irudikatzen zuen, enkantamendu eta guzti. Gasteizen ere ospatu bide zen 1569an zaldunen arteko bat⁹. Eta galdetuko duzue nolatan hau, XVI. mende erdia igarota zelarik. Gatozen erantzun batzuk aurreratzera.

Maila sublimatu batean izanik ere, horrelako errepresentazioetan beren arbasoek eta, neurri batean, baita beraiek ere oraindik partekatzen zuten gizarte aristokratikoaren balioak plazaratzen ziren. Esan dezagun hobeto: bizi edo bitiztea gustatuko litzaiekeen mundu baten irudikazioak ziren haiek. Berena izan baina jada ez zen gizarte baten ispilua zen hura guztia.¹⁰

Azken batean, mundu hori desagertua zen, eta gogoz kontra izan bazen ere, noblezia hura ordurako errenditua zegoen, erregearen absolutismoaren menara errenditua. Baina gogoz kontra ala ez, aristokrazia nobiliarioaren pribilegioak murrizten ari ziren eta monarkia absolutuaren orden berria hedatzen. Horren ondorio izango da aristokrazia beraren hiritartzea, landetako dorretxe isolatuetatik hirietako edo gortesau bizitzara igarotzea. Eta aristokraziaren bilakaera horretan literaturaren generoetan ere gertatuko da aldaketarik: zaldun-eleberriak indarra galtzen joango dira eta artzain-eleberriak irabazten, eta baita literatura mo-

9 Torneo horretan Juan de Larrea delako batek hartu zuen parte, beste hogeita bi zaldunen artean. Juan de Larrea horrek ba al zuen zer ikusirik gure Joan Perez de Lazarragarekin? Larreako gure Juan Perez Lazarragarekin? Zena zela zaldun hori, honako hauxe zeraman idatzia bere ezkutuan: *El fuego en que veis que ardo / me sostiene / porque amor así lo quiere*. Irudikatuak ageri ziren bertan su handi bat, zalduna eta dama. Ikus Eulogio Serdan y Aguirregavidia, *Historia de Vitoria*, Sendoa, Oiartzun, 1985.

10 M. Chevalier, op. cit., 98-103. or.

riskoarekiko gustua ere indartzen. Azken batean, Amadis-en erako eleberrietako balentria heroikoak ez zetozen bat garaiko gorteko bizitza neurritsu eta zeregin berriekin, nahiz eta zaldun-eleberrietako bizitza heroiko horrek nostalgia-igurtzi ukaezin bat izan, galdutako askatasunaren aieru edo galdutako independentziaren lekuko. Azken batean, hori guztia desagertua zen Erdi Aroko azken printzeekin batera.

Ikus, esate baterako, poema hau (B18):

1) *Egun batean nendorrela
bide estrexo batean,
esku batean nekarrela
kaltzaidu utsez errodel
zaldi on baten gainean,*

2) *banekarren esku bestean
listra onezko dardoa,
adarga on bat artzoean
arnas gortitza gorputzean
koraza akaz kaskoa,*

3) *konpaniatzat tristurea
askotan legez arturik
giatzat barriz benturea,
baneroean etxarea
txitez guzti au galdurik,*

4) *neroeala forma onetan
Biotz au guztiz tristea,
nik ez nebela pentsaetan
gero nekusen gauzaetan
erratu neben bidea.*

Ahapaldi hauek orain arte esandakoa lekutzeko balioko lukete. Zer gertatzen zaio ba Joan Perez Lazarragari? (Esan dezadan bere izenez aurkeztuko duela poema honetako zaldunak bere burua). Joan Perez de Lazarragaren autoirudikazio bat da poema, hori bai, zaldun-eleberrien erara irudikatua.

Bizitzaren baldintzak goitik behera aldatu zaizkionean, zer da noblezia horri geratzen zaiona? Bada, fikzioa, zaldun-eleberriekiko atxikimendua eta gorago ikusi dugun moduko zaldun-liburuen erako jolasak. Eta, egia esan, ahul agertzen zaizkigu jada Lazarragarengan, ez baitira horiek nagusi haren poesigintzan. Harenak kortesau estilokoak dira, artzain erako bukolismokoak eta amodio idealizatuak igurtziak. Eta zenbat eta gortekoago bihurtu zaldun-aristokrazia hori, zenbat eta hiritartuago, orduan eta bukolikoagoa eta arkadikoagoa zaldun-aristokrazia horren gustua. Artzain-eleberrien Arkadia hori hiriko gortetik bizitako imajinarioa da. Ordukoa da Fray Antonio de Guevara-ren *Me-nosprecio de corte y alabanza de aldea* (1539) bezalako tituluen arra-

kasta ere, eta ordukoa baita “*Beatus ille*” horaziarraren topikoaren arrakasta ere. Azken batean, gortetik aukeratutako imaginario ruralista-arradikoaren arrakasta da. “Gerlari-poeta” izatetik “artzain-poeta” izatera igaro gara.

Beraz, Lazarraga ere “gerlari-poeta” baino “artzain-poeta” izan genuen, eta pentsatzekoa da, garaiko beste artzain-aleberrigile askoren kasuan bezala, Jorge Montemayor-en *Diana*-k liluratu zuela gure Lazarraga.

Honela idatzi zuen geroago Cervantesek¹¹ *Coloquio de los perros*-en: “Las novelas pastoriles son casos soñados y bien escritos para entretenimiento de los ociosos, y no verdad alguna.” Dagoeneko XVII. mendean gaude eta igarotzen ari da artzain-aleberriekiko joera.

1559an argitaratu zuen Jorge de Montemayor-ek bere *Diana* ospetsua, berebiziko arrakastaz egin ere. Alonso Pérezek *La segunda parte de la Diana* (1564) eta Gil Polok *Diana enamorada* (1564) eleberrikin, ordurako hila zen egilearen arrastoari jarraitu zioten (Montemayor 1561an hil zen). Kalitatearen ikuspegitik bi eleberrien artean aldeak egon arren (bigarrena lehendabizikoa baino askoz laudatuagoa izan zen), ez zien arrakastak hutsik egin, ez batari ez besteari. Beraz, *Dianarekin* zabaldutako artzain-aleberriak ez zuen etenik izango XVII. mendera arte.¹² Ez ahaztu 1585ean Cervantesek ere bere lehen literatur-lan sendoa artzain-aleberri batekin lortu zuela, *Galatearekin*, hain zuzen, halanola Lope de Vegak, *La Arcadiarekin*, 1599an.

1.2.2. Joan Perez de Lazarragaren artzain-aleberria

Lazarragaren artzain-nobelatxoak Jorge de Montemayor-ek *Los siete libros de la Diana* (*La Diana*) liburuaren ildoari jarraitzen dio, idazlan horrek sekulako ospea izan baitzuen garai hartako europar literaturetan (Frantzia, Italia eta Ingalaterran), eta gogotik imitatu zuten idazle askok. Juan Perez Lazarragakoaren eskuizkribuak genero horren goraldia egiaztatzen du, baina, batez ere, hura da, orain artean dakigunez, hitz lauz idatzitako euskal literaturako lehen testua.

Artzain-generoak tradizio bukolikoarekin elkartzen du zalduntzarekiko joera, Virgiliorengandik datorrenarekin, bereziki. J. B. Avall-Arce-k¹³ dioenez, “erdialdeko mendeetan Virgilio literarioki kanonizatu izanak artzain-generoa finkatzen eta betikitzen lagundu zuen”. Erdi Aroko lehen lan dramatikoetan agertzen da jadanik Eguberriko ziklo liturgikoa, eta horri Virgilioren bukolismoa eransten ba-

11 Miguel de Cervantes, “Coloquio de los perros” in *Novelas ejemplares III*, Castalia, Madris, 1982, 254 or.

12 Juan Bautista Avall-Arce, *La novela pastoril española*, Istmo, Madrid, 1975.

13 Juan Bautista Avall-Arce, “Estudio Preliminar” in *La Diana*, Jorge de Montemayor, Barcelona, Crítica, 1996, X. or.

diogu, “hor hasten da bilbatzen literatura bukolikoak Errenazimenduan izan zuen arrakasta paregabea”. Lehendabiziko idazlan arrakastatsua *La arcadia* da, Jacopo Sannazaro italiarrarena, eta bigarrena, berriz, Garcilaso de la Vega-n gauzatu zen Petrarkaren joera; Garcilasoren *Églogas*, Salicio eta Nemoroso artzainen arteko maitasuna kontatzen duena, tradizio bukoliko-pastoralaren gailur poetikoa da.

Sannazaroren lana garrantzi handiko aurrekaria izan zen genero horretan, hark markatu baitzituen baliabide, gai, motibo eta topiko nagusiak (adibidez, prosaren eta bertsoaren arteko txandakatzea, edo bidaia, tramaren elementu egituratzaile gisa), eta harengandik Montemayoren *Dianaraino* iritsi eta, handik eratorrita, bere imitatzaille guztien artean zabaldu ziren. Lazarraga imitatzaille horietako bat izan zen. Montemayor-ek bete-betean asmatu zuen, tradizio neoplatonikoaren harian, bere lana sentimentaltasun abstraktu, idealizatu eta denboragabe bez onduz, bere obra gorteko zaldun eta damek irakur zezaten idatzi baitzuen, “bere aisialdian artzain mozorroa jartzea atsegin zuen” jende modu horrentzat, alegia. Egia esatera, Lazarragaren nobelako gertaera batzuk badute efektismo dramatikorik: iturrian pertsonaia batzuek bata bestearen ondoren kordea galtzen duteneko gertaeraz ari naiz, hain zuzen ere, konotazio erotikoko leku atsegin horretan biltzen baitira kontakizuneko lau protagonistak.

Aldaketa txiki batzuk gorabehera, Lazarragaren narrazioko izenak bat datoz bere ereduoen izenekin. Hala, artzain musika entzuten delarik, Sirenak (Sireno), Silveriok (Silvano), Silviak eta Doridok, nobelako pertsonaiek, bidean aurrera garamatzate haranetan eta zuhaiztitan, iturri itzaltsutan eta Dueroren bazterretan zehar; orobat ikusiko ditugu naturaz gaindiko agerpenak, zaldun-nobelagintzako tankerakoak, Amadís edo Clarián-en ildokoak, eta testuan azken horren aipamena egiten da bere izena duen artzainaren bitartez. Narrazioa amaiera aldera hurbildu ahala —gure eskuetara iritsi den moduan, behinik behin—, igarobideko erritu bat nozitu beharko dute protagonistek, zalduntzako fikzioek ohi duten tankerakoa. Marte jainkoaren aholkulari baten fantasiatzeko esku hartzearen laguntzaz, ispilu magiko bat emango baitie, pertsonaiek proba gaindituko dute eta onik irtengo dira estutasunetik. Nobelak aurrera jarraitzen duela esan liteke, edo narrazioaren etorriak beta ematen diela, behintzat, gertaera gehiagori, hala segi dezaten protagonistek maiteminez lanturuka.

Maiteminak jota daude pertsonaia, eta gaitz horren kontra ezer gutxi egin dezakete giza borondateak eta medikuntzak (Lazarragak ez zuen edabe magikoen sendabidea erabili, Cervantesen haserrerako¹⁴ Montemayorrek bere *Dianan* erabili zuen gisa, ohiko baliabidea izan arren

14 Miguel de Cervantes, *Don Quijote de la Mancha*, vol. I, Juventud, Barcelona, 1974, 73. or. Martin de Riquer-en edizio eta oharrak.

artzain eta zaldun nobeletan). Cupidok eragindako ume-maitasun apertatsua, patu itsuaren ondorio izanik ere, prestutu egiten du maitalea eta espiritualtasunez blaitzen haren kexua.

Artzain-eleberriek halako Arkadia bat ospatzen dute non artzainek beren amodio ezindu eta etsiak kantatzen dituzten. Arkadiako paisajea erabat tipifikatua da: iturriak, florestak, arbolak, ordoki zabalak, iturritxo freskagarriak, benetako atsegin-toki direnak (*locus amoenus*-en topikoa)... eta ardiak. Hitz egiteko garaian erabilitako epitetoak ere tipifikatuak dira. Eta zer egiten dute artzain-eleberrietako protagonistek? Bada, beren amodiozko penak elkarri kontatu, eta aldiro-aldiro, vihuela, rabela eta zanbonba hartu eta amodiozko penekin jarraitu, oraingoan kantatuz. Halakoetan, ardiak berak ere jateari utzi eta artzainen arteko intzirien jardunari adi jartzen ziren... XIX. eta XX. mendetik irakurrita, zail egiten zaigu halako zozokeriek izan zuten arrakasta irudikatzea. Baina halaxe gertatu zen: moda bat izan zen, gortesainen arteko moda bat: Erdi Arotik zetorren zalduneriaren tradizioari eutsiz XVI. mendean bertan justak egiten ziren bezala, gortearen inguruan festa-giro dibertigarriak eratzen ziren, artzain-eleberrietako azal eta mamiz mozarrotuz. Ikusten denez, Lazarragaren testua bete-betean dagokio “artzain literaturak gorteko jendearen munduaren errepresentazio ludiko gisa duen arrakastari”¹⁵.

Esan dugun guztiarengatik, pentsatzekoa da Jorge de Montemayoren *La Diana* eleberria ezagutzen zuela Lazarragak eta hango baliabide bat baino gehiago erabili ere egin zuela bere artzain-eleberrian. Zer esan, bestalde, bere koplen artean agertuko zaigun “Piramo y Tisbe” fabulari buruz? Ovidioren *Metamorfosiak* liburuko fabula horrek izan zuen arrakasta itzela izan zen Errenazimendu garaian. “Piramo eta Tisbe” eta “Hero eta Leandro” dira, seguru asko, Errenazimenduko idazleen artean kuttunenak izan zituzten alegiak. Ugari dira alegia horien bertsioak sasoi horretan: Montemayor, Antonio Villegas, Castillejo, Cetina, Lazarraga.

Hona hemen Lazarragaren “Piramo eta Tisbe”ren alegiaren pasadizo hau (A11):

“(…) *Ese banatan bici cirean
ceñac eusten alcarri;
eurac biac oy ebilcen
bapere baga lagunic.
gazte cirean artean, baña
azquero beti loturic.
Cerren guztiac egon joacen
andiro admiraduric
oy nola beti ebiltan diran*

15 Juan Montoro, “Prólogo” in Jorge de Montemayor, *La Diana*, op. cit., XLVII. or.

*Martin da Flora bacarric,
 Ayta-amaoc efini dave
 Flora oy encerraduric,
 cerren bertati jarri cirean
 sospecha gachez beteric.
 Amoraduoc ecustenean
 euren buruac loturic,
 aen bioçak nunberebaita
 egon joacen tristeric.
 Pensamentuac leucaela
 dolorez manteniduric,
 remedioa bila citecen,
 eurençat gora costaric.
 Bijeac alcar ecusteraco
 olçori dave iregui;
 ifini dave miraderoa,
 bioendako cilegui.*

Gorago aipatu dut literatura moriskoa. 1561eko edizio berrian Montemayor-en *Dianari* seguruenik Lazarragak gertutik jarraitu zuen eredu *El Abencerraje y la hermosa Jarifa* istorio moriskoa erantsi zitzaion, eta baita eranskin gehiago ere, esate baterako, Petrarcaren “Triunfo de Amor” idazlana, eta baita “Historia de Píramo y Tisbe”. Eranskin horien muina Lazarragaren eskuizkribuan dago bilduta.

El Abencerraje y la hermosa Jarifa-ren protagonistetako bat Narváez da, eta Lazarragaren artzain-eleberrian agertzen zaigu gaizkile salbajeen buru (salbajeen agerpena baliabide arrunta da artzain-eleberrietan).

2. Lazarragaren kantutegia

Artzain-eleberrian, nahiz garaiko XV. eta XVI. mendeetako kantutegietan ohi ziren kopletan, poeta beti agertzen zaigu kortesiatsu. Lazarragaren poesian ez da falta ez gorte kutsuko galaitasunik, ez manera delikaturik ez eta maitasun adeitsuaren gainerako zeremoniarik ere; alegia, damaren edertasunak galai atsegina aztoratuta eta liluratuta utzi behar du, eta hura goraiatu beharra dauka bere edertasun, bertute eta zuhurtziagatik, eta hura zerbitzatu beharra dauka berebat, golardoa berari eman diezaion erreguka ari zaion bitartean. Poesia hori poesia gortesaua da, Proventzako poeten bidez Europa osora hedatu eta halako kode propio batera errenditzen zena: damaren begiak bi gezi dira eta poetaren bihotza zauritzen dute; damaren edo, Lazarragaren kasuan, dontzeilaren begiak ikusi ondoren maiteminduko da galaia, edo beste modu batera adierazita, damaren begietatik jaurtitzen ditu bere geziak Kupidok, aurrerantzean, poeta damaren edo dontzeilaren gatibu gertuko da eta hari eskatuko dio senda dezala bere zauria bere erregua betez. Poesia gortesauaren maitasun-kodea Proventzako poeten tradizioetik dator eta Erdi Aroko eredu feudala inbertituz gauzatzen den ha-

rremana da: zalduna edo poeta da zerbitzaria eta damari zor zaio gizarfe feudalean jaun feudalari zor zaiona. Horra Lazarragaren adibide bat (A7):

*Poderioa andia doçu,
Ceruko Jaunak emunic;
çure beguioc ecusizquero,
banago catigaturic.
Pensamentuoc altuan ditut,
çuc ala meresciduric,
oy eta ez dot abajaduco
neure bician punturic.*

Noblezia eta espiritualtasuna dira damaren merezimenduak, idealtasunak goian jartzen ditu zerbitzatzen den damaren dohainak.

*Ene laztana, çure bildur nax,
ezin eguin dot bervaric
Nic claruago banesaquezu
Oy baneu licenciatic.*

Konbentzio gortesauan, hitzez motz edo hitzik gabe geratzea maitasun sendoaren adierazle da.

Orain arte ikusi dugunaren arabera, eredu tipifikatu baten aurrean gaude; XII.-XIII. mendeetatik aurrera, esaldiak eta jarrerak tipifikatuta daude kantutegietako konbentzio gortesauan.

Lazarragarenean ez dira falta kantutegietako poesia tankeratzen duten motibo, kasuistika eta maitasun-erretorikarik. Damaren edertasunari egindako gorazarre orok maitasun-ordain bat zekarren, benetakoa edo itxuratua. Gure poetaren kasuan, ordaina ia beti izaten da itxuratua benetakoa bainoago. Esan dezagun, gainera, Lazarragaren poesietan dontzeilei egiten zitzaizela maitasun-eskea, espainiar trobadore-lirikan gehienbat gertatu zen bezala. Lazarragarentzat, berak idatzitako maitasun poesia ez da, pentsatzekoa denez, gorte eta gazte jolas apaindura hutsezkoa baizik. R. Lapesak¹⁶ dioenez:

“Poesia, funtsezko alderdi batzuetan, denbora-pasa zen, musikaren eta jaien kidea, gaztaroak berezko zuen zerbait.”

Kontuan hartu beharra dago XV. mendeko eta XVI. mendearen hasierako kantu-lirika kantatua izateko idatzi zela, ez bakarrik errezeitatua eta irakurria, baina horrek ez du esan nahi olerki guztiek halakoak izan behar zutenik.

16 Rafael Lapesa, *De la Edad Media a nuestros días*, Madrid, Gredos, 1971, 146. or.

Asko dira Erdi Aroko kutsuko kantutegietako tradizioetik Lazarragak hartzen dituen motiboak eta maileguak: Flordelisa (“flor de lis” edo lore-lisa); Macías-en elezaharra, maitasunaren martiri eta maitaleen eredu izan baitzen Macías; Pantasilea-ren aipamena, Troiako elezaharrraren Erdi Aroko bertsiok ezagutarazi baitzuten amazonen erregina hori; erregearen, jaunaren, hiri baten edo erresuma baten laudorioa, edo, Lazarragak egiten duen bezala, bere herriarena. Espainiako Urrezko Mendean bat egin zuten, alde batetik, kantutegietatik zetorren arteari jarraitzen zion tradizioak eta, bestetik, italiar kutsuko poesia petrarkatar eta klasikoak. Aipatu beharra dago, hala ere, XVI. mendek ageratu eta interes handiagoa agertu zuela genero herrikoiei eta Erdi Arotik etorritako batzuekiko, nola diren gabon-kanta eta erromantzea. Joera ugariko giro aberats hartan egin zuten bat poesia kultura eta estilizatuak, Petrarkaren sonetoetan arragotuak, eta tradizio herrikoiko poesiak.¹⁷

Lazarragaren poesia ez zen sekula abiatu Gutierre de Cetina, Juan Boscán edo Garcilaso de la Vega-ren bide italiar kutsukotik. Ez zuen haren poesiak, ezta ere, Ausias Marchen espiritualtasuna izan. Gorago esan dugun bezala, Lazarragaren A8 koplak zordun zaio Gutierre de Cetina²⁵ sebillarrak kantu bati egiten dion glosari: “Zagala, cuán libre estás, / cuán soberbia, dura y fría, / pues yo espero que algún día / casarás y amansarás”. Ez da komeni ahaztea, baina, “casarás y amansarás” hori garai hartan bizirik zegoen atsotitz ezagun bat zela. Horra, bada, adibide gisa, nola baliatzen zuten garai hartako koplari eta poeta kultuek (eta horien artean Lazarragak) herri-literaturaren ondarea. Gauza bera egingo du Lazarragak kantutegiz kantutegi (eta garaiko hainbat poeta kulturen artean) idatzita zebiltzan hainbat motiborekin: “La bella malmaridada”¹⁸ edo “La malmonjada”¹⁹. Gainera Lazarragak ondutako poesia ez zuen XVI. mendean poesiarik gailenari nagusitu zitzaion espiritualtasun artistiko berriak eraldatu. Molde tradizionala koagoa da haren poesia, nahiz batzuetan kutsu klasikoak irudiak tartzatzen dituen: Cupido, Garaipenaren Orga, Fortuna jainkosa... Zentzu horretan, bide erdian geratzen da Lazarraga, bai Oihenartengandik urrun samar ere, haren italiar eraginak galduxeu baitu Petrarkaren ga-

17 Ikus Rafael Lapesa, “Poesía de cancionero y poesía italianizante” in *Garcilaso: Estudios Completos*, Madrid, Bella Bellatrix (Istmo), 1985, 213-238. or.

18 Ikus P. Urkizuren op. cit., 123. or.

19 B17ko testuak (“Monasterio santu devotoa”), bere erara, “La malmonjada”ren motiboa garatu nahi lukeela dirudi. Susako *Armiarma.com* (Klasikoekin gordailua: Lazarraga) bertsiolari jarraituz, bertso honekin egingo dugu topo. “Ama libreaganic jaio ninzan”. B9 poeman (“Mayor que mi sufrimiento”) Urkizuren bertsioko 3. ahapaldian agertzen da honako bertso hauek agertzen zaizkigu: “sepultada estoy aquí... de libre madre nascí”. Jakina, aurrenekoa bigarrenaren zordun da, eta biak dira garaian oso zabaldua zebilen motibo beraren garapen. Ikus Juan Rodríguez Padrón-en motibo beraren erabilera: “Aunque me vedes así / cativo, libre nascí” in B. Dutton & V. Roncero, *La poesía cancioneril del siglo XV*, Madrid, Iberoamérica, 2004, 312. or.

raitik Berpizkudean nagusitutako neoplatonismoa, eta tresna poetiko fin-fina bilakatu baita. Oihenartek eduki espiritualez gabetu du bere poesia, baina zilargin bikainaren kontzientzia artistikoz leundu ditu bere bertsoak, eta estilazio-maila galanta iritsi du horrela. Baldin eta platonikoa baldin bada *Dolce stil novo*-ko poesiari darion ideia, zeinaren arabera damak arazte eta hobekuntza morala eragiten baitio berari begira dagoen gizonari, Petrarkaren eskuetan ideia horrek berak “esan nahi du bertso leunduak ontzea, bertsook ospearen betikotasuna irabaz dezaten poetarentzat eta bere maitearentzat”²⁰. Lazarragaren poesia, ordea, oso urrun dago italiarraren poesiatik eta hark arimaren nahitasunak aztertzeko duen modu sotiletik.

Emakumearen edertasuna goraiatzeko duenean, Lazarragak ez dio jarraitzen Petrarkaren ildoko Berpizkudeko poesiari, Arezzoko poetak bere marka ezarri baitzuen damaren hazpegiak eta gorpuzkera deskribatzerako moduan. Estilo tradizionalako gorte-poesiak ez du denborarik galduko damaren aurpegiera eta gorpuzkera deskribatzen. Bai, ordea, Petrarkak eta Oihenartek, luze aipatzen baitituzte damaren hazpegi nagusiak eta haren itxura eta jasa idealizatzen: begi urdinak, adats horiak, perlazko hortzak, lepo lerdena, eta abar.

Inguruko izadiarekiko erabateko ezaxolatasunean aipatzen ditu Lazarragak maitasun-liskarrak, eta ezaugarri horrek bere jatorri tradizionala erakusten du. Hori bezain antzinako ezaugarria da Jainkoari etengabe egiten zaizkion deiak, Lazarragaren poesian behin eta berriz gertatzen denez. Lazarragaren poesian ez dago aipamen mitologiko, elizkoi edo erudito korapilatsurik. Eta mitologiako aipamenei bat egiten duenean, A11 koplan bezala, Erdi Aroan eta Berpizkudean egundoko lilura sortu zuen alegiatako baten glosa egiten du (Antonio de Villegas, Jorge de Montemayor, Cristóbal de Castillejo): Piramo-ren eta Tisbe-ren alegiarena. Gorago esan dugun bezala, Piramo eta Tisbe-ren alegia, Hero eta Leandroekin batera, oso estimatua izan zen (egile kultuenetik herri-literatura bera ere zipristintzeraino) garaiko literatura-gusturako.

Ezer baieztatzekotan, arabar poetaren maitasun poesiak baieztatzen du ez diola inolako atxikimendurik maitasun adeitsuaren errepertorio konbentzionalak bere baitan izan dezakeen ezein kutsu espiritualari. Lazarragak argi eta garbi adierazten du nolakoa den bere adeitasuna: dontzeilak bere aginduetako batzuk hausten dituelako poetak Maitasun-i (Amodio jainkoari) egiten dion arneguak ez du zalantzarako biderik ematen. Hura bere mendean hartzeko nahiari uko egiteagatik *belle*

20 M. R. Lida de Malkiel, *Estudios sobre la literatura española del siglo XV*, Madrid, José Porrúa, 1977, 262. or.

dame sans merci hori gogor zigor dezala eskatzen dio poetak jainkoari. Zentzu horretan, A16²¹ eta A17 poesiak erabat argigarriak dira.

A21 poesiak irri egiten dio adeltasunaren konbentzioari eta modu eraginkorrago batez asetzen du bere nahia, poesia herrikoia eta ez hain jasoari dagokion eran. Herri xehe-xehearen kantutegiei zerien poesia herrikoia eta erotikoarekiko (erotismo handikoa) kidetasuna da Lazarragaren poesiaren zentzua definitzen duen beste ezaugarri bat. A19 eta A21 poesiak barra-barra darabiltzate kantutegi ofizialetatik kanpoko irudi eta topiko sexualak (lantzetak eta txaplatak). “Peritxo eta Anton” (A13) gabon-kanta bera ere ez zetorren agian uste bezain iturri agurgarrietatik, nahiz jainkozko kutsua emana zion XVI. mende erlijioz blaituak²²:

*“Barri onac dacart,
Pericho y Antón
orayn jaio dala
nuestra salvación.*

21 Maitasun konjuroa motibo arrunta zen garaiko kantutegietan. Horra Hernando del Castillo-ren *Cancionero General* Ittik (Castalia, Madrid, 2004, 43-51 or.) hartutako adibide bat. Francisco de Coatanarena da etz ez da falta bertan ez tortolatxorik, ez unikorniorik eta ez pelikanorik, animalia tipifikatuak motiboaren garapenean. Honako epigrafe hau darama poemak. “Y esta primera es unos *Conjuros de Amor*, que hizo a su amiga, conjurándola con todas las fuerças del amor”: [...] “Aquella fuerça gigante / con que Amor derriba y cansa / el animal / que viene humilde delante / la donzella que le amansa...” (unikornioa); “Aquel llanto que publica / con su llanto de amargura / desmedido / la biuda tortolica / cuando llora con tristura / su marido / y se busca soledad...” (usapala); “Aquel amor tan derecho / y querencias tan estrañas / del ave que rompe el pecho / y da a comer sus entrañas / por amor...” (pelikanoa). Konjuroak aurrera egin ahala honelakoxeak opa dio maiteminduek maitaleari. “.../ por que crea tu pasión / y ante mí hasas pedaços / a ti misma, /...que, al cabo ya de tu muerte, / pidiéndome compassión, / des el alma.” Azken bertso horiek Lazarragaren A16ko zenbait bertsoen oihartzunik badute.

22 Ez dago dudarik, P. Urkizuk Lazarragaren edizio kritikoa (op. cit., 133. or.) ziurtatzen duen bezala, Francisco de Ocañaren *Cancioneros para cantar la noche de Navidad y las fiestas de Pascua* (Juan de Gracián, Alcalá, 1603, 18-21. or.) kantutegian biltzen duen bertsoia duela poeta arabarrak gertuenekoa: “Buenas nuevas buenas / Perucho y Anton, / Que hoy es nacida / Nustra salvación. / Allá repastando / El nuestro ganado, / Nos ha espantado / Un Angel bolando, Dixonos cantando...”.

Ikus, baita ere, P. Alzieu, R. Jammes, I. Lissorgues, *Poesía erótica del Siglo de Oro*, Crítica, Barcelona, 2000, 109. or. Bertan esaten zaigu Francisco de Ocaña 1603an jasotako gabon-kantaren doinuak (“No me le digáis mal, madre, a fray Antón”) honako beste honen iturritik edan zuela: “No me digáis, madre, mal del padre fray Antón, que es mi enamorado y yo téngole en devoción” (Francisco Salinas, *De musica libri septem*, 1577). Ikus daitekeenez, gero gabon-kanta xalo eta orbangabea bihurtuko dena ez zen inondik ere iturri agurgarrien isuri.

BIBLIOGRAFIA

- AAVV, “Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa” (Vitoria-Gasteiz, UPV / EHU, 2010). Interneteko Honako helbide elektronikoan: www.ehu.es/monumenta/lazarraga.
- Aldekoa, Iñaki, *Historia de la literatura vasca*, Donostia, Erein, 2004.
- , “Ernazimentua Lazarragaren literaturan”, Donostia, Egan, 2009–1/2.
- Avalle-Arce, Juan Bautista, *La novela pastoril española*, Istmo, Madrid, 1975.
- , “Estudio preliminar”, *La Diana*, Jorge de Montemayor, Barcelona, Crítica, 1996,
- Blecua, José Manuel, *Sobre poesía de la Edad de Oro*, Gredos, Madrid, 1970.
- Chevalier, Maxime, *Lectura y lectores en la España de los siglos XVI y XVII*, Madrid, Turner, 1976.
- Di Cesare, G.; “El último legado de Juan Pérez de Lazarraga: su testamento”, Gasteiz, Sancho el Sabio 31, 2009.
- Dutton B. & Roncero V., *La poesía cancioneril del siglo XV*, Madrid, Iberoamérica, 2004.
- Gartzia, P.; *Lazarraga. Ernazimentua euskaraz*. Iruñea, Pamiela 2005.
- Lakarra, Joseba A., Juan Perez Lazarragakoren eskuizkribua (XVI. mendea): lehen hurbilketa (2004).
- Landa, Iñigo, “Lazarragaren eskuizkribua-Transkripzioa” (Online).
- Lapesa, Rafael, *De la Edad Media a nuestros días*, Madrid, Gredos, 1971.
- , “Poesía de cancionero y poesía italianizante” in Garcilaso: Estudios Completos, Madrid, Bella Bellatrix (Istmo), 1985.
- Montoro, Juan, “Prólogo”, *La Diana*, Jorge de Montemayor-ena, 1996, XLVII.
- Rodríguez-Moñino, Antonio, *Construcción crítica y realidad histórica en la poesía española de los siglos XVI y XVII*, Madrid, Castalia, 1968.
- Salaberri Muñoa, Patxi, “Lazarragaren artzain-nobela irakurtzen”, Egan 56: 3 /4..
- Urkizu, Patrizio, “Joan Pérez de Lazarraga, autor de *Dianea* / *Koplak* (Madrid, 1567), primer novelista y poeta vasco”, Madrid, UNED, Revista de Lengua y literatura catalana, gallega y vasca, 2004.
- , *Joan Perez de Lazarraga. Dianea & Koplak. Madrid 1567*, Donostia, Erein, 2004.

DOCUMENTACIÓN Y BIBLIOGRAFIA

Virginia LÓPEZ DE MATURANA DIÉGUEZ - La cuestión vasca en el diario *El País*. Artículos de opinión (1976-2005) (Pág. 155)

